

# JOLASA: ESKUBIDEA ETA ERREALITATEA





**- Herri Hezitzailea lantaldea:**

*Irrien Lagunak Kluba, Txusma Azkona, Alfredo Hoyuelos, Hik Hasi pedagogia-ekimena, Oarsoaldeko Garapen Agentzia, Topagunea, Sorguneak ikertegia (Huhezi, MU), Ikastolen elkarteko Aisiola aisialdiko taldea, Tabakalera, Amarauna Sarea, Pil-pilean euskara elkartea, Kukumixo, Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdiko elkartea, Bizkaiko Urtxintxa eskola, Gipuzkoa Urtxintxa eskola, Arremanitz, Elgoibarko Izarra eta Ttakun Kultur Elkartea.*

**- Koaderno honen egilea:**

*Txusma Azkona eta Alfredo Hoyuelos*

**- Maketazioa eta ilustrazioak:**

*Eñaut Aiertzagüena Bravo*

**-Argazkiak:**

*Txusma Azkona, Pilar Gonzalves, Alfredo Hoyuelos eta Roxanna Pastor*

**- Inprenta:**

*Gertu inprimategia*

**- Babeslea:**



**- Bildumaren ISBN:**

*978-84-617-7759-4*

**- Jolasa: eskubidea eta errealitatea**

*SS-0005-2017*

*ISBN: 978-84-617-7760-0*





Zazpi kontzeptutan oinarritzen da hemen proposatzen dugun aisia-eredua. Zazpi eremu horiek elkarrekin ezkontzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek halaberrez elkarrekin joan behar dutela uste dugu.

Horrela formulatu ditugu gure lan-eremua eta xedea:

- Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen **haurren kultura aitortzea**;
- Hori oinarri hartuta, haurrei **benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena** ematea;
- Euren eraikitako **aisia hezitzaile** eta **euskaldunaren** bitartez, **aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana** indartzea
- Pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta ase-garriak jostea.









# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b>	<b>6</b>
<b>2. JOLASTEKO ESKUBIDEA: HAURRAREN AUKERAK ETA HELDUAREN BELDURRAK</b>	<b>8</b>
<b>2.1. Elkarrizketak</b>	<b>8</b>
<b>2.2. Umeek esaten dutena</b>	<b>12</b>
<b>2.3. Prozesuak irudietan</b>	<b>14</b>
<b>2.4. Hainbat hausnarketa</b>	<b>16</b>
<b>3. ZERTARAKO JOSTAILUAK</b>	<b>17</b>
<b>3.1. Elkarrizketak</b>	<b>17</b>
<b>3.2. Umeek esaten dutena</b>	<b>21</b>
<b>3.3. Prozesuak irudietan</b>	<b>23</b>
<b>3.4. Hainbat hausnarketa</b>	<b>27</b>
<b>4. JOLASTEKO ESPAZIOAK ETA DENBORAK</b>	<b>28</b>
<b>4.1. Elkarrizketak</b>	<b>28</b>
<b>4.2. Umeek esaten dutena</b>	<b>35</b>
<b>4.3. Prozesuak irudietan</b>	<b>36</b>
<b>4.4. Hainbat hausnarketa</b>	<b>40</b>
<b>5. BUKATZEKO ETA HASTEKO</b>	<b>43</b>





## I. SARRERA

*Jolasaren konplexutasuna dela medio gertatzen dira lehen urteetan gizakiaren bizitza osoko irakaspen garrantzitsuenak*

*“Francesco Tonucci”*

Tania Ramosek jolasteko liluraz hitz egiten digu, nola ludikoak hunkitu, zirrara eragin, jakinmina sortu eta dibertitzen duen. Jolasa oraindik misterioa da; pertsona helduoi haurtzaroa dakarkigu oroimenera eta dibertsioa, sorpresa eta barregura sortzen dizkigu. Aldi berean zera dio Ramosek: jolasa oraindik ez da baloratzen ez errespetatzen, eta mesprextatua dago eskola kurrikulumean. Inportantea da jolasa dago-kion lekuan ipintzea, jarduera hezigabe, zalantzazko eta ezusteko lez.

1981ean, eskola adineko haur arruntak bere denboraren %40 zuen jolasteko. Hogeita hamar urte geroago, jolasteko

denbora %35era murriztu da. Eskola batzuetan jolas orduak murrizten ari dira. Pediatra batzuk baieztatzen ari dira belaunaldi berriei jolasteko aukera lapurtzen ari gatzaizkiela. Eta kontu honek lotura zuzena izan dezake haur adineko depresio, antsietate eta suizidio kasuen igoerarekin.

Badakigu asko jolasten diren hurrek alaiagoak izateko joera dutela. Eta alai sentitzen diren hurrek hobeto erlaxionatzeko eta sormenezko konponbideak aurkitzeko joera azaltzen dute.

Liburuxka honetan hain erreibindikatua zein historikoki ahaztua izan den eskubidea aldarrikatu nahi dugu.





Hiru kapitulutan banatua dago: jolaste-ko eskubidea, zertarako jostailuak eta jolasteko espazioak eta denborak. Kapitulu bakoitza aldiz, elkar erlazionatu-riko lau ataletan banatzen da:

- Hezkuntza munduan haur jolasari buruz nahikoa esperientzia duten profesionalei egindako elkarrizketak: Francesco Tonucci psikopedagogo, Haurren hiria egitasmoaren sortzailea; Alicia Vallejo, haur jolasean pedagogo aditua; Teresa Godall, Bartzelonako Unibertsitateko irakasle eta Emmi Piklerren lanean aditua; eta Pilar Gonzalves eta Joaquín Escaray, Iruñeko San Francisco Eskola Publikoan haur hezkuntzako proiektua aurrera

daramaten irakasleak. Proiektu honen ardatz nagusia da haurrek duten jolaserako eskubide eta beharra errespetatzea ororen gainetik.

- Haurren imaginario ludikotik elkarrizketaren bidez jasotako ideia batzuk.
- Haurren argazki-sekuentzia eszena eta eszenatoki ludikoetan.
- Gure hainbat hausnarketa kapitulu bakoitzeko.

Armiarma sare honek egin eta berregiten ditu ideiak, aldarrikapenak eta mundo konplexu eta ezezagun honetako praktikak, baloratua bezain eztabaidatua behar duena.





## 2. JOLASTEKO ESKUBIDEA: HAURRAREN AUKERAK ETA HELDUAREN BELDURRAK

### 2.1. *Elkarrizketak*

#### *Francesco Tonucci*

Alde batetik, zer dela-eta jolasteko eskubidea? Eta bestetik, zer egiten da eskubide horrekin?

Jolasteko eskubidea onartua dago, nire ustez, joan den mendeko ikertzaileren lanari esker. XX. mendean, gure irakasleek —Freud, Piaget, Bruner, Vygotsky...— ulertarazi ziguten gizon eta emakumeon bizitzako lehen aroa dela garrantzitsuena. Alegia, bizitzako lehen egunak, lehen hilabeteak, lehen urteak. Uste dut inork ez duela hori ez-baian jartzen: garrantzitsuena aurretik gertatzen da. Gauza garrantzitsuenak jada gertatu diren momentuan iristen da eskola. Lehen urteetan jartzen dira bizitzan zehar familian, eskolan edota gizartearen eraikiko dugunaren zimen-duak.

Azpitarratzekoa da eskubide hori jaso dagoela 1959ko azaroaren 20an Nazio Batuen Erakundeak onartu zuen Haurren Eskubideen Deklarazioan. 30

urte geroago, 1989ko azaroaren 20an, NBEk Eskubideen Konbentzioa onartu zuen. Konbentzioaren 31. artikulua atsedean, aisialdi eta jolaserako eskubidea aitortzen du.

Baina beste alde batetik, gaur egun, beldurra dela kausa, helduok haurren autonomia murrizten ari gara.

Uste dut guztiz bidezkoa dela kontuan hartzea haurren eskubide bat dela, eta eskubide hori eskolarako eskubidea bezain garrantzitsua dela, Konbentzioak ematen dion lekuaren arabera behintzat. Eskola ez dute aipatzen hainbat artikulua, eta jolasa artikulua batak bakarrik eta kasik zeharbidez. Horregatik, hirietako haurren kontseiluetan, honako gai hau jartzen diet haurrei: bi eskubideek pisu juridiko bera baldin badute, benetan maila berekoak al dira gure bizitzetan? Haurrek barre egiten dute, eta ezezkoa erantzuten dute. Eskolara egunero joan behar dute, etxeko lanak egin behar dituzte eta askotan ez dute jolaserako denborarik ezta egokierarik ere. Hortaz, helduok ez ditugu





bi eskubideok modu berean errespetatzen. Pertsona heldu arruntaren mentalitatean, hala eskolaren esparruan nola familiarenean, jolaserako eskubi-deak ez du ikasketetako eskubidearen balio eta ospe bera.

Izan ere, autonomia eta askatasunarekin lotutako gai honetan eragin handia duen beste alderdia arriskua da. Jolasaren funtsezko osagaia da arriskua, baita haziera eta garapeneren funtsezko osagaia ere. Ez dago garatzerik oztoporik gabe, zailtasunei aurre egin eta haiek gainditu gabe, arriskuaren emozioa eta gainditzearen satisfakzioa biziz. Edo ez irabaztearen frustrazioa sentitu gabe, frustrazioa ere bizi beharrezko esperientzia baita.

Gaur egungo haurrek esperientzia hori ez bizitzeko arriskua dute, gurasoak gertu dituztelako arriskua saihesteko. Beti prest daude haurrak babesteko, haien nahiei, galderei... aurre egiteko. Itxuraz dena errazagoa da horrela, baina oztopoaren esperientzia bizitzea falta zaie haurrei. Probako osagaia da oztopoa: neure buruarekikoa alde batetik, eta nire lagunetikoa bestetik; atzo, beharbada, egiten ez nekien zerbait egiten badakit gaur. Haurrek ezin dute esperientzia hori bizi, eta arriskua sentitzeko beharra, geure barruan indar handia egiten duena, batez ere hazkunde fase honetan, atzeratuz eta handituz joaten da, neraberazoan leher egiten den presio indartsua sortuz. Eta orduan, hain da indartsua arriskua bizitzeko nerabearen beharra ezen adierazten denean oso modu arrisku-tsuan egiten baitu.

Haurrei gertaturiko istripuei buruzko datuak emateko eskatzen badiegu hiri bateko osasun agintariei, esango di-

gute etxeko istripuak edo autoan gurasoekin izandako trafiko istripuak direla gehienak. Hortaz, etxea eta autoa dira eremurik arriskutsuenak haurrentzat. Errepidea baino askoz gehiago.

Bestetik, badira obesitatea bezalako arazo handiak. Lehen herrialde aberatsetako haurrak ziren arriskuan zeudenak, baina badirudi herrialde txi-roetakoak ere arriskuan daudela gaur egun. Haurren obesitateak mugimenduarekin du zerikusia. Baina interesgarriena da jakitea mugimendu autonomoarekin lotura duela. Pediatrek baieztatu didate. Sendiek maiz esaten didate: "Diru asko xahutzen ari gara futbol, saskibalo, dantza, gimnasia ikastaroetan emanez gure haurren izena". Kontua da ikastaro horietan egin, bizi edo garatu daitezkeen mugimenduak heterozuzenak direla beti; alegia, beste batek esaten dio haurrari nola mugitu behar den, zer ezin duen egin, horrek Messi modukoa izateko aukera murrizten duelako... Baina milioika haurren artean bakarra izango da Messi bezalakoa. Zer gertatzen da beste guztiekin? Beste guztiek betirako gorrotatuko dute kirol hori. Beraz, sarritan heziketako desmasiak ere egoten dira proposamen horien atzean.

Pediatrian ez dago zalantzarik euren energiak modu bat-batekoan kanporatzeko premia dutela haurrek. Hortaz, gomendio zehatza egin beharko litzaieke gurasoei: euren seme-alabek egunean ordubete edo bi ordu eduki behar dituzte lagunekin jolasteko, helduen kontrol zuzenetik kanpo. Orobat, eskolara lagunekin joatea eta etxera lagunekin itzultzea energiak botatzeko aukerak dira.





Azken ikerketek diotenez, deskarga fisikoaren esperientzia honek zerikusi handia du arretarekin. Haurren arretarazoeekin lotutako botiken bonbardatze bat ari da gertatzen eta Estatu Batuetatik Europara zabaltzen ari da. Oso-oso larria da. Hor sekulako merkaturua dago.

Danimarkan egindako ikerketek aztertu dute eskolara oinez joaten diren haurren eta gurasoekin autoan joaten direnen arteko aldea. Lehenengoan arreta maila nabarmen altuagoa zen, eta lau ordu irauten zuen, alegia, eskolako denbora osoa. Pentsatzen jarrita, ez da zaila ulertzea zergatik den horrela. Eskolara autoan doan umea, praktikan, ikasgelan esnatzen da. Hau da, ohetik altxatzen dugu, janzten dugu, garbitu, prestatu... eta eskola eramaten dugu. Alderantziz, eskolara bere kasa joaten den umea bere ordutegiari arduratzen da. Eskoletako zuzendariek diotenez, eskolara bakarrik joaten diren haurrak puntualagoak dira. Horrek alderdi sinpatiko bat du eta beste bat sakonagoa. Sinpatikoa, agerian uzten duelako ordutegiak betetzeko helduon zailtasuna. Presaka eta korrika ibiltzen gara maiz. Baina bestetik, esan nahi du 6, 7, 8 urteko ume bat gauza dela bere denbora antolatzeko. Eta irudikatu dezakegu zer balio duen horrelako esperientzia batek, eskolara joan aurretik behar duen guttia egiteko garaiz jaikitzeo ardura bere gain hartzen duen ume batek bizi duenak: gosariari arduratzen da, garbitzeaz, eskolara eramane behar duen materiala hartzeaz, gurasoak agurtzeaz... Ume hori esnatuago iristen da eskolara (irekiago, prestatuago, oxigenatuago). Hala baieztatzen dute hainbat ikerketak, eta oso interesgarria iruditzen zait. Hots, arlo fisiko

eta sozialean arazo handiak daudela uste dut.

Jolasarena bezalako esperientzia bat definitzen duten beste alderdiak fantasia eta sormena direla uste dut. Atsegin dut esatea giza esperientziarik konplexu eta aberatsenetakoa dela jolasa, aukera ematen dizulako mundu zati bat nahi bezala mozteko eta nahi bezala tratatzeko. Eskuratzerik ez duzun hori asmatu dezakezu. Alegia, badu ahalguztiduna izatetik zerbait. Nahi duzuna ahalbidetzen dizu jolasak: makil bat zaldi bilaka dezakezu; zuretzat zaldi bat da, baita zurekin jolasean ari direnentzat ere.

Hori da jolasaren ahalmena. Gizakia- ren motorrik boteretsuena du: plazera. Eskolako esperientziarekiko aldea agerikoa da. Eskolan, irakasleak moztan du mundu zatia, edo testu liburuak. Ezarritako mozketak bat da. Eta normalean, haurraren autonomia eta askatasun eremua oso txikia da. Batzuetan, oso-oso txikia, haurraren rola entzuteran eta irakasleak esandakoa gogoratzera mugatzen delako. Eskola eredu tradizionalaz ari gara. Nire seme-alabetako batzuei bizitzeko egokitu zaien eskola eredia da, baina baita nire bi bilobei egokitu zaiena ere. Ez da plazeraren motor boteretsuan oinarritzen, askoz ahulagoa den betebeharraren motorrean baizik.

Nire irudiko, zinezko jolasa haur-jolasa da beti —heldu-jolasa ere izan daiteke batzutan— eta zerikusi handia du artearekin, zientzia ikerketarekin, esperientzia mistikoarekin... Gizakiaren esperientzia gorenak dira horiek, askatu egiten dute eta jolastea ahalbidetzen diote. Oso interesgarria izango litzateke jendea horretaz hausnartzera





bultzatzea, euren seme-alaben jolasa gehiago errespeta dezaten.

## **Alicia Vallejo**

Gobernuei Hezkuntzarako Eskubidea interesatzen zaie, eskolak nola obeditu irakasten duelako, baina Jolase-rako Eskubidea ez zaie interesatzen. Zu zeu izateko eskubidea esan nahi du, ekimena izatekoa, erronkak jartzekoa, zeure askatasunaz jabetzekoa. Ez dago Eskubide hori betetzeko aukerarik. Ez espazio publikoan, ez egokitutako espazioetan, ezta familien eta bizilagunen arteko harreman eremuan ere. Eskolak duen onena, askorentzat, jolas-ordua da. Baina patioetan ere ez dago jolaserako giro egokirik, noragabe ibiltzen ikusten dituzu haurrak, edo futboleak. Haurrak bakardadean dira.

Bizitza gizatiarragoa behar dugu, harreman pertsonaletarako aukera eman-go duena, norberarentzat denbora izatekoa, ikusle isila izateagatik ordaindu beharra ardatz izango ez duen aisialdiaz gozatzekoa... Winnicotek dio "konfiantzazko espazio bat" sortzen denean hasten dela jolasa. Jolasak gertuko pertsona heldu baten konplizitatea, presentzia eta maitasunezko euskarria behar ditu. Pertsona horrek bere gorputza eta gaitasun ludikoa eskaintzen dizkio haurrari bizitzaren lehen urteetan, eta jolasean murgiltzen laguntzen dio. Ondoren lagun-taldeen konplizitatea eta sormen kolaboratiboa behar ditu haurrak.

## **Teresa Godall**

Haurrengan pentsatuta, jolas egokia litzateke modu batean edo bestean

arakatzen duen edo errepikatzen den bat-bateko edozein adierazpen edo ekintza. Bat-bateko jarduera egokia da naturaltasunez egiten bada, kasualitatez edo borondatez. Jolas libreari garrantzia ematen diogu haurtzaroaz eta haurtzarotik ikasteko aukera delako. Haurraren ekimenak, desioak, interesak... sakonki begiratzeko aukera.

Ekintzak, emozioak, impasseko momentuak edo itxuraz aspergarriak direnak aurretik sumatu ezin daitezkeen jolasaren konplexutasunean sinisten dugu. Badakigu lehen adinetako jolasean dagoela; denbora tarte luzeak izaten dira, ekintzak laburrak, aldi-zkakoak edo ustekabekoak izanda ere.

Giza izaerak berezkoa du jolasa. Jolasten uztea, izaten uztea da. Gu guztiongan dagoen gizatasuna eta sormena deskubritzea. Jolas errepikatuak, batzuetan obsesiboa ere ematen duenak, segurtasuna sortzen du, ikasketa. Errepikaraztea haurraren erabakimena deusezteka da. Horregatik mintzo gara jolas libreaz. Horrek esan nahi du denbora uztea gu geu leku aurreratua batera igaro ahal izateko.

Oraindik ere jolasa ezezagun handia da niretzat. Batez ere alderdi kognitibo batetik landu dugu jolasa. Piagetek asko lagundu digu, baina asko baldintzatu gaitu ere. Beharbada, alderdi freudiar, psikoanalitiko bati lotuta ikusi dugu jolasa. Jolasak, giza ikuspegitik, oraindik ikertzeke dauden aukera kulturalak edo epigenetikoak ditu. Gurea den eta muzin egin ezin diogun gizatasuna du jolasak.

Garrantzitsua da jolasa behatzen ikastea, zer iradokitzen edo pentsarazten digun eta sortzen denean nola adierazten den ikastea. Zer daki haurrak?





Jolasten da edo ez? Jolasa da ala jarduera librea? Asmo bat dagoenean identifikatzen dugu jolasa. Ba al dira asmo hori, gainerakoentzat ikusezina dena, identifika dezaketen profesionalak? Noiz dago intentzioa? Desioa edo beharra dagoenean? Jolasaren hasierako marra ezabatu beharko genuke, eta pentsatu gizatasun ekintza dela jolasa, eta gizatasuna jaio aurretikoa dela beharbada. Era probokatzailan esango nuke beti dagoela jolasa, bizi-tza jokoan dugulako jolasean.

## **Pilar Gonzalves eta Joaquín Escaray**

Jolaserako eskubidea oinarrizko eskubidea da eta eskubide guztiak babestu behar dira. Norbanakoen adierazpen askatasuna babesten dugu. Badirudi politikoki zuzena dela jolasaren garrantziaz hitz egitea. Haurren jolasaren garrantziaz hitz egiten dute komunikabideek. Eskubide hori babesten duten aditu asko dago, baina eskolan ematen du murriztu dela. Eta badirudi hura babestea arauak haustea bezala dela.

Ikusten dugu haurren jolas-ordua murrizten ari dela, baita Lehen Hezkuntzan ere. Egunean bost minutu gutxiago. Klaustro gehienetan aldarrikatzen dugun zerbait da. Haur horiek bost minutuan murriztua dute jolaserako eskubidea. Aldarrikapen politiko bat da. Eskubide hori babesten ez badugu, haurren esentzia lehenago desagertzen da. Ematen du mundua presatuta dagoela helduak izan gaitezen, baina hain zuzen egin behar duguna da geure barruan dagoen haurtzaroko zatiari ahalik eta denbora gehien eus-

tea. Horregatik mantendu nahi dugu jolasa bizirik. Kitzikatzen dugun sugarra da, haurraren bidea argitu dezan. Ikusi dugu beste etapa batzuetan ondo egindako lanaren saria dela jolasa, baina gure kasuan ez da horrela. Lehen hiru urteetan jolasa da haurren lehentasunezko jarduera. Haurtzaroko sugar hori itzaliko ez dela bermatuko duten "zaintzaileak" gara.

Horrez gain, jolasa modu profesionalen behatzen dugunean, modu oso eta kontzientean, kurrikulumetan jasotako helburuetako asko betetzen dituzte haurrek. Eta gainean gu kapazak ez garen modu batean konbinatzen dute. Adibidez, zakurrarena egitera jolasten badira, katea beste haur bati jartzeko, eusteko eta gainera minik ez egiteko eskuzko koordinazioa ikusten dugu. Tiratze luze edo zakarrik ez emateaz arduratzen dira, beste haurra eroso sentitu dadin lepoan katea loturik daraman zakurraren rolean. Elkar zaintzen dute. Ikaragarria da hori ikustea, eta horren inguruan egiten duten lana. Beste jolas mota batzuetan koroak, lepokoak edo betaurrekoak sortzen dituzte. Eta badakite nola egin. Arretaz begiratu bagenu, betetzen dituzten helburuak asko direla ikusiko genuke. Irakasle batzuek ez dute argi ikusten, eurek diseinatzen dutenean bakarrik ikusten dute. Aldiz, ez dute ikusten, edo onartzen, haurrek diseinatzea. Galera handia da haurrentzat eta profesionalen-tzat.

## **2.2. Umeek esaten dutena**

Lau urte eta 11 hilabete eta 5 urte eta 7 hilabete arteko haurrek zera diote: guk jolasteko eskubidea dugu, baina ez gaude derrigortuta jolastera. Eskubi-deak esan nahi du zerbait egin ahal







dela. Hurrek gurasoen eskubideak entzuten dituzte; hurrek hurren eskubideak entzuten dituzte; gurasoek hurren eskubideak entzun behar dituzte. Bidezkoa da hurrak zorion-tsuak izan eta gurasoek jolasten uztea, dibertitzen ez badira oso triste jarriko baitira.

Neskek zera diote: etxeko lanak egitea beharrezkoa da, eskubideak izatea beharrezkoa den bezala. Eskubideak

esan nahi du lege pixka bat badela. Egiteko eskubidea. Eskubidea beharrezkoa da inor gaizki ez egiteko. Bidezkoa da hurrek jostailu asko izan ditzaten, gustatzen zaizkielako, baina bidezkoa da gehiegi ez izatea ere, bestela amak ez baitu dirurik izanen zopa erosteko. Eta lan egiteak nekatzen duenez, norbait nekatuta dagoenean jolastera joan daiteke.



### 2.3. Prozesuak irudietan

Barañaingo Alaitz ikastetxe publikoan, Iruñeko San Francisco ikastetxe publikoan, Iruñeko Mendillorri Udal haur eskolan eta parke batean egindako argazkiak.







## **2.4. Hainbat hausnarketa**

***Helduek euren seme-alabei emandako konfiantzaren araberakoa izango da gure haurren segurtasuna, eta ez beldurraren eta defentsaren araberakoa.***

***“Francesco Tonucci”***

Jolasak, bakarrik arriskatzea esan nahi du, bakarrik aukeratzea, edonorekin elkartu edozer egiteko. Eta esperientzia hau desagertzen ari da. Haurrak jolasaren beharra dauka ez hiltzeko. Airea bizitzeko lez. Haur eta adituek eskubide hori eskola barruan eta kanpoan aldarrikatzen dute. Eskubide hori, hainbat teoriak azaltzen dutenez, biologikoki osasuntsu, emozionalki lasai, ongizatean besteekin hobeto harremantzeko balio du, gatazkak modu resiliente batean konpontzeko edota bitza alaitasunez maitatzeko modu bat bezala.

Pertsona batzuek diote jarduera honek ez duela kanpo helbururik bere baitan. Horregatik aldarrikatzen dugu ez dadi-la perbertitu, haurrek ikas dezaten guk aurretik nahi duguna. Jolasa, erabilgarria denarekiko desberdina da, heziketa tresna desberdina; garapenaren ibilgailua baino gehiago da. Ondorio erabilgarriak izatea ala ez, adibidez, gaitasunen formakuntzan, beste kontu bat da.

Jolasa, hainbat idatzitan irakurri ahal dugu, haurraren askatasunarekin helduak duen konpromisoa da, haren aukera askatasunarekin.

Fikzio edo itxura egitea amore ematea da, bereziki haurra benetan ez dena izatera jolasten denean. Egoera erreal eta irudimenezkoei irekiera suposatzen du. Jolasaren bidez haurra orainalditik ateratzen da, egoera zehatzetik, beste egoerak probatzen ditu, beste rol batzuk eta eguneroko bizitzaren errealitateak laguntzen ez dion askatasuna, oraina indarrez bizitzeko aukera etorkizunaz kezkatu gabe. Herritar lez kontuan hartzeko erakargarritasuna da, eta ez oraindik ez dena txikia kontsideratzeagatik.

Jolasak baditu konexio sistematikoak jolasa ez denarekin; uztartua dago sormenari, arazoaren konponbideari, lengoiaren irakaskuntzari, paper sozialaren garapenari eta garapen emozionalari. Baina hau erakutsi ezin daitekeen gehigarria da. Jolasa, eskubide lez, haurrek dioten moduan, “pixka bat legea bezala da, egiteko eskubidea”.







## 3. ZERTARAKO JOSTAILUAK

### 3.1. Elkarrizketak

#### Francesco Tonucci



Haurren lehen jolasa, ziurrenik, amaren bularrarekin eta begiratzan duten begiekin egiten duena da. Ondoren bere gorputzarekin jolasten hasten da, aldi berean besteren objektua dena eta ez dena, eta ondoren bere ohe-txoan aurkitu dezakeen guztiarekin. Haurren lehen mugimenduekin hasten da iraultza.

Denborarekin gauzak aldatzen direla esaten dute. Lehen kalean jolasten zen, orain gelan. Lehen pilotarekin jolasten zen, orain ordenadorearekin.

Sinpleegia iruditzen zait baieztapen hori, hutsalegia. Lehen esaten nuen bezala, jolasa oso kontu konplexua da eta ezin da hutsalakeriaz tratatu. Eta jolasaren banalizazioa gertatzen ari da, helduak jolasaz jabetu diren neurrian. Lehen jolasa ez zen gure ardura, haurren kontua zen. Helduek apenas sartzen zuten muturra. Batzuetan jostailuak sortzen laguntzen zuten, besterik ez.

Jostailuaren merkatu bat dago, eta horrek izugarri aldatu du heldu, haur eta jostailuen arteko harremana. Seme-alabekin oso denbora gutxi pasatzen dutelako hainbat gurasorengan pizten diren erruduntasun sentimenduak baretzeko funtzioa betetzen du, sarri, jostailuak.

Zoritzarrez, balioa duen objektu bihurtu da jostailua, eta duen balioaren arabera, zaintza afektiboaren ordeko gisa erabiltzen da. Paradoxikoki, jostailuen balioa kontrakoa da: merkeenak,





edo batere balio ekonomikorik ez dutenak, dira baliotsuenak. Beti esaten dut lokatza dela jostailuaren prototipoa: ez da ezer, baina dena izan daiteke, dena egin baitezakegu. Ez dut esan nahi lokatza haurrentzako jolasa bakarrik denik, baina ondo legoke hurrei lokatz zati bat oparitzeko ohitura berreskuratzeari. Zoriontsuak izango lirateke haurrak, haien amak ez horrenbeste...

Parametro gisa erabiltzen dut lokatza: jostailuek lokatzaren antza badute, onak dira. Badira onak diren jostailuak, aukera ugari eskaintzen dutelako. Pilota ona da, joko indibidualak eta kolektiboak egin daitezkeelako. Era askotara jolas daiteke pilotarekin. Panpina jostailu ona da, harekin hitz egin dezake dalako, nire alaba, nire ama, nire andereñoa... nik nahi dudana izan daiteke. Jakina, panpinak hitz egiten duenean, arazoa sortzen da, apur bat tuntuna bihurtzen delako: esaten dakiena baino ez du esaten. Aldiz, egiazko panpinak esaten du nik esatea nahi dudana guztia, erabateko interakzioa dago. Jostailu moderno asko inozoak dira, teknologia sofistikatua erabiltzen baitute helduak engainatzeko eta diru gehiago gastatzera behartzeko, haurren jolas aukerak zabaltzeko baino gehiago. Mecanoa, legoa, papera, kutzak... jostailu onak dira, gauza asko egiteko aukera ematen dutelako. Guraizeak tresna zoragarriak dira, nahi dutena moztu eta jostailuak asmatu ditzaketelako.

## Alicia Vallejo



Jostailuak ez du jolasik sortzen. Jolasa barruan sortzen da. Jolasa jarrera bat da; konfiantza eremu bat behar duzu. Edozein gauza bihurtzen da jolas. Ezarritako jolasak ez zaitu jolastera bultzatzen, hotz uzten zaitu. Klimax handia eskatzen du, borondatea, bat-batekotasuna, doakotasuna. Satisfakzioak eta plazerak irauten dutena irauten dute. Bakarrik ala lagunduta jolas egiteko aukera izan behar duzu, seguru sentitzen zaren leku batean. Jolasaren materia haurraren barrenean dago, ez kanpoan. Jolasak zu zeu izatea, zeure burua ezagutzea ahalbidetzen dizu. Ikastea dagoenarekin moldatzea da. Baina jolastea kanpkoa eraldatzea da, zure erara, zure behararen eta nahiaren arabera. Beraz, beharrezkoa duzu eraldaketa eremu bat. Zenbat eta eraldagarriagoak izan gaiak, orduan eta handiagoak dira jolaserako aukerak. Zu zeu, jokalaria, zara esanahiak erabakitzen dituen. Ez zara mundu fisikoan ari, semiotikoan baizik. Zeure buruaren eta bizitzaren metafora egiten ari zara. Pentsamendu sinbolikoak agintzen du jolasean, emozioek eta sentimenduek. Haurraren desioak,





jostailuak baino gehiago. Edozer gauzarekin egin dezakezu. Ez dago jolaserako material zehatzik. Herri jolasek, diadakoek, gorputzarekin eta helduaren gorputzean jolasten direnek, heldua gehitzen dute beste jokalaria bat bezala. Material naturalekin eta hondakinekin egindako jolas tradizionalak bikainak dira. Norbanakoaren garapenaren arabera sortutako jolasetan, elkarrekintza sozialerako gaitasunak zehazten ditu rolak. Mintzaira gaitasunak eszena eta gidioen sorrera errazten du. Erronkak gainditzeko gaitasun kognitiboak tramaren bilakaera eta arazoek konponbidea eragiten du.

Antzinatek jolasa erabili izan da helduen mundua islatzeko eta umea bertan barneratzeko, teknologia berrien erabilerarako trebatuz. Nire iritziz, arbuigarria da jostailua erabiltzea rol sexualen transmisiorako edo estatus ekonomikoa adierazteko. Jostailuaren teknologia iruditzen zait interesgarriena. Jostailua apurtzea nola funtzionatzen duen ikusteko, zergatik mugitzen den, zer duen barruan. Deseraiki eta eraiki, azpian dagoen teknologia ikustea da interesgarria. Noski, zailagoa da teknologia elektronikoa denean. Interesgarria iruditzen zaidana da oinarriko mekanismoekin egiten den jolasa: palankak, balantzak, sokak, biraderak, tornuak, flotagailuak, mekanoak, arkitekturak... Mugimendua eta oreka ulertzeko aukera bat da. Uste dut haurrek badutela asmamen biologikoa eta ezagutza gaitasun fisikoa; aurkikuntza eta ikerketarako plazera dute, eta euren burua harritzeko eta eurak eta besteak nola mugitzen diren ikasteko gogoia, oso interesgarria. Euren kasa deskubritzen dute palanka, edo abiadura zentripetoa eta zentrifegoa. Alde

horretatik, jostailu mekanikoak oso interesgarriak dira. Eraldatzeko, sortzeko, nola irudikatu deskubritzeko eta irudi mental hori erreal bihurtzeko aukera ematen duten jostailuak interesgarriak iruditzen zaizkit. Irudikatzen duzun guztia sor daiteke.

Mahai-jokoak Ilustrazioan erabili ziren haurrari burua berotzeko. Engainatzeko modu bat zen jolasaren bidez ikasiko zuela esatea. Jostailu didaktikoak ere engainagarriak iruditzen zaizkit. Aldiz, adin batean hurrei asko gustatzen zaizkie araututako jolasak eta estrategiako jolasak, eta are gehiago familiako helduekin jolastu ahal badute (partxisa, kartak, damak, xakea...). Erronka desiragarria da.

50eko hamarkadara arte ez zen jostailurik izan. Plastikorekin jostailua mundu osora zabaldu zen eta jada ez da aberatsen objektu bakarrik. Lehenago, portzelanazko edo txapazko jostailuak estatus altukoak ziren. Herri xeheak material naturalekin egindako jostailuak erabiltzen zituen, eta horietako asko etxean bertan egindakoak ziren. Ohikoagoa zen bat-bateko jolasarekin lotutako jostailua, gutxi ziren eta objektu afektibotzat har zitezkeen. Objektu bakar batekin hainbat jolas asmatzeko eta berrasmatzeko aukera ematen zioten haurrari. Kontsumoari lotuta, ez dauka inolako interes pedagogikorik. Haatik, jolas tradizional eta herrikoiek aukera hezigarri ugari eskaintzen dute, baldin eta errespetatzen badugu rolak, arauak, estrategiak, gaitasunak, erronkak behatzeko eta parte hartzeko borondateak ematen duen beharrezko klimaxa. Haurraren garapen integrala deskubritzeko eta laguntzeko aukera ugari eskaintzen dio hezitzaileari.



## Teresa Godall



Jolas libreak aukera ematen du mugimendua globaltasunean ikusteko. Aldi berean, mugimendu askatasunak jolasaren inplikazio eta dimentsio anitza indartzen du. Zentzu horretan, uste dut berrikusi behar dugula jolas-proposamenak antolatzeke edo aurkezteke modua. Burura datozkit, esaterako, altxorren saskia edo Goldschmieden joko heuristikoa; aitortzen dut izugarria dela haien ahalmen hezigarria; behaketarako jolas egokia da. Baina ezin dut saihestu haurren mugimenduan eta gorputzaren inplikatzeko moduan erreparatzea. Gorputza guztiz ahaztua, isilarazia dagoela sentitzen dut. Haurtxo batzuk eserita “jartzen” dituzte modu kognitiboan bakarrik ikertu dezaten, eta harrapaturik gelditzen dira, euren kasa jarreraz aldatzeko, etzateke edo berriz esertzeko ahalik gabe. Beharrezkoa al da motrizitatearen batbateko garapena sakrifikatzea hurrek ikas dezaten? Mugimenduak haurren psikismoa adierazten badu, Piklerrek dioen moduan, horrek esan nahi du gorputz osoarekin adierazten dela, eta altxorren saskian haurra eseritako posiziora mugatua dago haurra.

Bada haurraren lehen jostailu-jolasa eskua dela uste duenik. Baita amarekiko harremana, kontaktua, bularra dela uste duenik ere. Beharbada, burura datorkidan lehen gauza material pentsatzea da, eta aurretik gure gorputzean. Hau da, material egokia izateak eskatzen du oin bat ortozik baina bero edukitzea; arropa eroso. Pentsatu behar dugu gure gorputzean bertan hasten dela jolasa, haren gaineko eta objektuekiko ekintzan. Gure ekintzaren ondorioak behatzeko denbora eta espazioa baldin badugu, horrek autorregulatzeko aukera ematen digu.

Haurrentzako material egokiez ari bagara, uste dut interesgarria dela material berberak aurkeztea, harik eta haur bakoitza objektu horiekiko harreman eta sormen aukera guztiak baliatzeke gauza den arte. Garrantzitsua da paradoxa ulertzea: altzari, edukiontzi, objektu eta material berberen banaketa modu diferenteetan aurkeztu behar da, baina sarbide errazarekin. Ikusgai dagoenak heltzeko modukoa izan behar du. Pisu ezberdinetako materialak. Gure gorputz osoarekin jolasten diren material handiak, proportziozko erlazioak dituztenak euren artean, oratzeke eta jartzeko errazak direnak, etabar.

Materialen izaeran ere pentsatzen dut gaur egun. Materiarekin jolasteko esperientzia —ura, harea, egurra, harria, metala— ez da gutxietsi behar. Baina horri gehitzen badiogu materiaren gaineko hausnarketa, balioa ematen diegu naturalaren edo artisauaren ñabardurei, “plastikoaren” perfekzioa eta uniformitatea ez duenari.

Eskaintzen ditugun objektuen balio kultural eta antropologikoa ere kontuan hartu behar dugu. Osagai sinbolikoa





duen eguneroko materialaren xumetasunaz eta konplexutasunaz ikertzeko beharra jarri du mahai gainean Ute Strubek. Jolasaren objektuek esperientzia, kultura eta erabilera biltzen dute. Jada ez diogu kognitiboaren balioari, adimenaren garapenari bakarrik erreparatzen, baizik eta jolasaren giza balioa bilatzen ari gara.

Materialen koloreei buruz ere gogoeta egin beharko genuke. Gure aholkua da gehiegizko kontrasterik ez egotea. Ekintzan, bilaketan sortzen den ñabarduraren balioaz ari gara. Kolore batzuek nekatu egiten dute. Jostailu askok estimulu-apeuaren balioa biltzen dute, baina nire esperientziaren arabera, haurtxoak denbora luzez harremantzen dira biziarratzen dituzten objektuekin, horrek plazera ematen die. Bitxia da, baina pertzepzio-zailtasunak dituzten haurrek metakrilatozko objektuekiko interesa dute.

Material arinak dira, ikuspegi ezberdinetatik bestelako pertzepzioak ahalbidetzen dituztenak. Kubo batek, zuloak egiten badizkiogu, hainbat aukera eskaintzen ditu. Objektu trinkoek jolas-, ahokatzeko-, harreman-pertzepzio aukera gutxiago eskaintzen dute, nahiz eta materialetarako eta gorputza bermatzeko euskarriak izan daitezkeen arren.

Interesgarriak dira ere pilotak duen ahala eta sortzen dituen jolas prozesuak. Froebel-ek aipatzen zuen. Pikler, Kálló eta Tardosek, hainbat argitalpen eta dokumentaletan, biraketa objektuaren balioa gogorarazi digute.

### 3.2. Umeek esaten dutena

- Jostailuek jolasteko balio dute, dibertitzeko, eguna pasatzeko, arratsaldean ez aspertzeko. Aspertzen bazara ez dakizu zer egin. Baina pentsatu ahal duzu ez aspertzeko. Jolastu gabe asperraldiaz hilko ginateke. Guztiz aspergarria litzateke.
- Afrikako haurrak ez dira jolasten, jan egin nahi dute.
- Bai jolasten direla, Tarzan eta Jane bezala ibiltzen dira soketan zintzilik. Horrela jolasten dira.
- Jostailuek historiak edo antzerkiak egiteko balio dute.
- Gustura egoteko balio dute.
- Balio dezakete, adibidez, panpinei burua, hankak, besoak kentzek; panpinaz barre egiteko bilutsik dagoelako; ostikadak eman, hilda dagoela irudikatu eta magia egiteko.
- Panpinek muxuak emateko balio dute. Senargairik ez duenak balio du ahoan muxuak emateko, muturrean, sabelean, aluan, ipurdian eta titietan. Bularrak erretzen dit. Nire pasioak dira.
- Lagunak egiteko balio dute. Gauza dibergarrietara jolasten naizean ez naiz aspertzen.
- Play Station-en bada borroka jokoa, zuk giltza egin ahal duzu, burua atera eta odola egiten diozu, baina ez duzu hiltzen. Dibertigarria da, ezpatarekin mina eginen bezenio bezala egiten duzu eta gero bizitza eman ahal diozu.
- Jostailuek dibertitzeko balio dute. Dibertitzea barre egitea da, ondo pasatzea. Pozik egotea, jolasten ikastea.
- Lana egiteak nekatzen du. Jolasten gutxiago nekatzen naiz.





- Lana egitea fitzak egitea da. Bost minutu etxeko lana egiteko.
- Jolastea ondo pasatzea da, ikastea.
- Jostailuak El Corte Inglés-en asmatu dituzte.
- Javierrek asmatu ditu. Bertakoa ez den pertsona bat. Kobazuloetan asmatu zituen, gauza gehienak bezala.
- Usted dut aspertuta zeuden haur batzuk asmatu zituztela eta baloiaz jolasten hasi ziren. Beste batzuk jolasak egiten hasi ziren, eta horri, lehen aldiz, jolasa deitu zioten.
- Jostailuak langile batzuek asmatu dituzte, baina Jainkoak pentsatu ditu.
- Ez! Beren izena ez dakigun gizon batzuk izan dira.
- Nik asmatu ditut. Egurra hartu eta etxetxoak egiten ditut.
- Jostailuak asmatzeko artista bat izan behar da eta asko ikasi. Eta metala, egurra eta plastikoa izan behar dira.
- Nik, papera, kartoia eta plastikoarekin.
- Errege Magoek, Olentzerok eta Papá Noel-ek asmatu dituzte, nahiz eta batzuetan erostera joan.
- Jostailuak fabrikatik datoz. Erregeek dendan erosten dituzte.
- Ez. Dendetan lapurtzen dituzte, Olentzerok bezala.
- Plastikotik datoz, fabriketatik, Toysrus-etik, Erregeen zakuetatik, Olentzero eta Papa Noel-etik.
- Niri guztiak gustatzen zaizkit, baina haur txikiak ez.
- Nik jostailu aldizkarietan ikusten ditut ederrak direnak.

- Jostailu batzuk telebistan ikusten ditut. Baina engainatu egiten gaituzte. Badira bakarrik oinez ibiltzen diren Barbiak, baina gezurra da.
- Bakarrik dabilta, baina zeuk maneiatu behar dituzu. Bestea gezurra da.
- Irargarki batean gizon bat agertzen da adreiluak hartzen eta bakarrik ibiltzen, baina dena gezurra da.
- Ideiak aldizkari batetik ateratzen ditut, dendetatik, telebistatik (nahiz eta gezurra esan, zeren eta ateratzen baita panpina zapia altxatzen zaiola, eta gero ez).

### **3.3. Prozesuak irudietan**

Harkaitz eta Anek haien jostailuekin entzierroa montatzen dute. Tutuak hesiak adierazteko erabiltzen dituzte. Bestalde, Rod Campbellen ipuinaren irudia (txerria) San Fermin irudikatzeke erabiltzen dute, berari abesteko. Bukatzeke, zezenak kamioian biltzen dituzte.

Barañaingo Alaitz ikastetxe publikoan egindako argazkiak.

















### **3.4. Hainbat hausnarketa**

#### ***Naturako objektu oro ezberdina da eta plastikozko jostailuek baino zentzumen-komplexutasun handiagoa dute.***

***Heike Freire***

Haurrentzat, jostailurik gabe jolastu daiteke. Hau jakitea oso garrantzitsua da ahaztu egiten dugulako.

Haur eta helduak entzun ditugu esanez jostailuak baliagarriak direla baldin eta jolasa ez badute baldintzatzen, aukera mugagabe eta ustekabeetara jaurtitzen badute. Jakintasun handiz jostailuak berak asmatu dituela esaten duen haurra bezala.

Kontuan hartu beharra dago jostailuak jakingura, irudimena, sormena eta plazer estetikoarekiko motibazioa estimulatu edo eragin behar duela. Jostailua ezin daiteke izan kontsumo gizarte honetan harro erakusteko produktua, jolaserako baliabidea baizik.

Aditu eta haurren hitzek, estructuresatu gabeko balioaz hitz egiten digute, bere polizentzumen aukerengatik hautatua (plastikozko homogeneousotasunetik urrunduz), kolore naturalekoak.

Ikerketa batzuk adierazten duten moduan, zenbat eta jostailu gehiago, orduan eta jolas gutxiago. Mundu honetako arriskua, edukitzeaz irritsu eta izateaz ez horrenbeste.

Ez dakigu norena den esaldi hau: "Jostailuen erreinuak badu arriskua, haurrak

bere bakardadea estutzen duen leku miragarri eta artifizial bihurtzea". Haur eta helduen arteko harreman osasuntsu baterako errebindikazio ideia da. Industrializatutako jostailuen masifikazioaren kontrako ideia. Jostailu horiekin, hurrei behar artifizialak sor ahal zaizkie, beraien benetako beharrak sekula agerian utzi gabe. Aditu batzuek egiaztatu dute jostailu industrializatuen agerpenak jolas eta jostailu tradizionalen desargerpena ekarri duela. Aditu berberak jostailua eskuratu aurretik geure buruari egiteko hainbat galdera egoki aurkezten dizkigute:

- Dibertigarria izanen al da? Haurrak dibertitzeko jolasten dira, ez ikasteko.
- Dibertigarria izaten jarraituko al du?
- Ziurra al da?
- Sendoa al dirudi?
- Nor jolastuko da, haurra ala jostailua?
- Haur jakin horrentzat egokia al da?
- Zenbat oparitu behar dizkiogu?
- Zein jostailu du jada?
- Beharrezkoa al da helduen laguntza? Eta hala bada, jolasteko betarik al dut?
- Beharrezkoak al dira jolas lagunak jolastu ahal izateko? Eta hala bada, ba al ditu hurbil jolas lagunak?
- Nolakoa da bere diseinu estetikoa?

Dena den, ezin ahaztu, Tonuccik dioen lez, lokatza edota kartoizko kutxa bat direla jostailurik hoberenak.






## 4. JOLASTEKO ESPAZIOAK ETA DENBORAK

### 4.1. Elkarrizketak

#### Francesco Tonucci



Gaur egungo irudipena da askoz arrisurtsuagoa dela kalea, hirietako trafikoa dela eta. Datuek alderantziz dela diote. Duela 30 urte, esaterako, askoz gehiago ziren istripuak. Auto istripuak murrizten ari dira astiro. Krimen kopurua ere behera egiten ari da mantso baina etengabe. Beldurra beraz, beste nonbait dago. Interesgarria da jakitea, esate baterako, haurren autonomia,

haurren mugimendua, asko aldatzen dela herrialdetik herrialdera.

Ez dugu Espainiako daturik, baina bai Portugal eta Italiakoak. Espainia testuinguru horretan dagoela pentsa dezakegu. Ingeles batek, Mayer Hillmanek, zuzendutako ikerketa batean parte hartzen ari da Italia duela bizpahiru urtetik hona. Azken 40 urteotan haurren mugimendu autonomoak izan duen bilakaera aztertzen ari da Hillman. 20 urteko epean izan duen aldaketa neurtzen du. Ingalaterran hasi zuen azterketa, 1970an. 1990ean Alemaniara zabaldu zuen. 16 herrialde aztertzen ari da 2010. urteaz gozotik. Emaizak esanguratsuak dira: Italia azken aurreko tokian dago haurren autonomiari dagokionez. Eskolara bakarrik joateko baimena duten haurren kopuruaren arabera neurtu zuten mugimendu autonomia. Italian, haur hezkuntzan, %7 dira. Alemanian, %75. Finlandian, %90. Zein dira hiru herrialdeotan antzeman ditzakegun aldaketa sakonak? Ezin dugu klimaren argudioarekin zuritu. Alemaniako klima ez







da aldekoa. Ezta Finlandian ere, urtean sei hilabete ilunpean bizi baitira. Eta haur guztiak, sei urtetik aurrera, baka-riik joaten dira eskolara. Finlandia eta Suediako irakasleak behartuta daude egunero patiora atzeratzea, tenperaturak ez badu zero azpiko 30 gradutik behera egiten. Italian hezetasun pixka bat nahikoa da patiora ez ateratzeko.

Haurrak helduen kontrolpean bizi diren esperientzia bihurtzen ari da jolasa gaur egun. Plazara, parkera laguntzen diete. Hiriak haurrei emandako espazio horiek ia berdinak dira leku guztietan, mendebaldean behinik behin: kulunkak, txirristak eta beste egitura batzuk.

Haur bat, egunero eta hainbat urtez jarraian, espazio berean eta jostailu bereberekin jolastu daitekeelako ideia zentzugabea da. Iduri luke helduak, arkitektoak eta kudeatzaileak, ez direla sekula haurrak izan. Helduei begiak iteko eta haur jolas batean pentsatzeko eskatzen diedanean, inork ez du kulunka edo txirrista aukeratzen. Agian kontaezinak diren gauzak bururatsen zaizkie. Gauza horiekin hazi dira, ezagutu dute mundua. Nik uste dut hori dela funtsezko gaietako bat: jolastu aditza ezin da jokatu lagundu aditzarekin. Hortaz, espazio horiek ez dira jolaserako egokiak, eta ezin da haur bat jolastera lagundu. Jolastu aditza utzi aditzarekin bakarrik joka daiteke. Haurrei utzi egin behar diegu, haurrek jolasten badakitela sinetsita. Haien kontua da, ez gurea. Guri dagokigu jolastu ahal izateko baldintzak sortzea. Horrek esan nahi aske uztea, etxetik helduen laguntzarik gabe ateratsen baimentzea, lagunekin topo egitea, jolas bat modu librean hautatzea, eta jolas ho-

rretarako leku, espazio egoki bat bilatu ahal izatea.

Jolas bakoitzak bere espazio zehatza behar du. Alderantziz ere esan dezakegu: aurkitzen dugun espazioaren arabera, erabaki dezakegu espazio horrekin modu koherente eta zehatz batean jolastea. Gogoratzen dudanez, etxeko eskailerak leku zoragarria ziren bizilagunekin jolasteko. Dendetara, eskolara, antzerkira jolas gintezkeen. Gaur egun eskailerak jolaserako erabiltzea debekatzen duten arauak daude bizilagunen komunitate askotan, eta horrek asaldatzen nau. Igogailuekin, ia inork ez ditu eskailerak erabiltzen, beraz, ez da ulertzen zergatik ez den jolaserako leku ona. Eskaileretan oso txikiak direnetik has litezke umeak jolasean, etxeko atea zabaldua, aldameneko lagunekin, gertu dituzten helduen kontrolpean. Bizpahiru urteko umeak izan daitezke, gelatik gertu dagoen espazio bat probesten dutenak. Aldiz, debekatu egiten da. Igogailurik ez zegoenean eskaileretan jolasten ginen gu. Ondorioz, pertsona bat pasatzen zen aldiro jolasa deseraiki behar genuen, eta gero berriz eraiki. Baina elkarbizitza modu bat zen eta ez zuen arazorik sortzen. Autonomiaren gaia ez da aintzat hartzen. Askotan gurasoek esaten didate: "Bai, bai, pentsatu dugu horretaz. Hamabi urtetik aurrera utziko diogu ateratsen". Eta muga hori gero eta zabalagoa da. Baina etengabeko prozesua da autonomia, zilbor hestea moztean hasten da, bizitzako lehen egunean, eta egunero elikatu behar da. Horregatik atsegin dut haurren esperientzian oso goiz gertatzen diren adibideak aipatzea. Beti esaten diet gurasoei ez erabiltzeko corralito-rik, hobe dela manta bat erabiltzea. Man-





ta zahar bat askoz sortzaileagoa da, esperientzia eta abenturarako askoz irekiagoa, mantatik atera daitekeelako. Haurra mugitzen hasten denean, katuka edo lau oinean ibiltzen hasi aurretik, gorputzarekin, mantatik atera eta etxeko zoko batean ezkutatu daiteke, eta negar egin gurasorik ikusten ez duelako. Hilabete gutxiarekin bizi duen lehen abentura izan daiteke. Hori, parke edo corralito batean, ezinezkoa da.

### **Teresa Godall**



Haurrentzat segurua izango den ingurune bat eskaintzea da egokiena. Baina ez dadila ingurune pobre bat izan, egiteko aukerez betea egon dadin. Jolas librea laguntzen duenari deritzogu ingurune egokia, baina baita haurren jarduera segurtasunaren eta aukeraren artean garatzeko aukera ematen duenari ere.

Helduaren ikuspegitik, haur-jolasa ikusi eta bertan sortzen diren prozesuetatik ikasteko aukera ematen duen jolasa da egokia; heldua gai baldin bada jolas horretan xedea duten proiektuak ikusteko, proiektu esanguratsuak. Erronkak proposatzen dituzten jolasak ere dira interesgarriak.

Jakin badakigu umea, halabeharrez, ingurura egokitzen dela. Horregatik ingurune hobeezinez mintzo naiz, oraindik asko dugulako ikasteko mugimendu librearen garrantziaz, haurrei eskaintzen dizkiegun proposamenak benetan egokiak izan daitezten, adiera guztietan.

Jolas egokia da antolaketaren alde-tik mugimendu askatasuna, globalitate eragilea, oin, hanka, beso, esku eta buruaren miaketa-jarduera, baina batez ere gorputz-enberraren mugimendua —berme eta atsedeen forma diferenteetan— errespetatzen dituen. Umea eserita egotera “behartzen”, “bultzatzen”, “ikasten”, edo “ohitzen” ez duen jolas mota bat.

Hautzaroko motrizitate libre eta globalaren bilakaera-aldien aniztasuna errespetatzen eta haietara egokitzen diren jolasetan pentsatu behar dugu. Ardura eta erronka da beren lanaren bikaintasuna hobetu nahi duten profesionalentzat. Horretan ari gara lanean gu.

Nire iritziz, espazio hobeezinez zerikusitua handia du bilakaerarekin eta oinarriko beharrekin, baina baita gure haurrei eskaini nahi diegun heziketarekin ere. Hots, lehenik eta behin, uste dut ezinbestekoa dela espazio segurua bermatzea; mugak, iradokitzen duten mugak izan behar dira, eta ez debekatzen dutenak. Jolas librerako espazioari kalitatea ematen dion beste alderdi batek mugimendu ebolutiboa kontuan hartzearekin zerikusia du; ez soilik adina eta lorpenak, baita aurreko interes eta mugimendu ebolutiboak ere.

Ikusgai denak ekintzara bultzatu behar du, ekintzen, denborazko sekuentzien eta espazioen auto-antolaketara. Jola-





serako espazio hobeezinean pentsatzeak tentsio kreatiboa dakar, arretatsua, adimentsua, gertatzen denarekin edo gerta daitekeenarekin elkarriketan dagoena.

Azkenik, espazioak denontzako izan behar du ezin hobea. Hau da, heldua eroso sentitu behar da bertan. Horrela, haurren biltzeko, eraikitzeko, partekatzekeo gaitasunaren arabera egokituko ditugu objektuen kopurua, aurkezpen modua eta mota, ahantzi gabe profesionalak jaso, berrantolatu eta arazorik gabe bizitzeko aukera izan behar duela, jolas librean esku hartu gabe ez bada benetan beharrezkoa. Askok uste dugu helduaren zeregina dela entzutea, aurreikustea, hornitzea, ñabardurez berrantolatzea, elkarriketa sortzea objektuen antolaketaren bidez... Profesionalak onartu behar du bere zeregina dela jasotzea, haurrak jasotzen ikas dezaten “hezi” gabe. Alderdi guztiz berritzailea da hori, konplexua. Jolas espazioekiko profesionalaren zaintza, eraginkortasuna eta adimena gehiago ikertu beharreko arloa dela uste dut. Ez gara soilik espazio bero, egoki eta hezigarri bati buruz ari, bizitza espazio bati buruz baizik, zeinean jolas librearen bidez beha dezakegun ikasitako hura. Budapesteko Pikler institutuko hezitzaile eta profesionalengandik jaso ditudan oparrietako bat izan da modu askean, helduarekin elkarlanean, jasotzen duten haurrak ikustea.

Jolasen kalitatea, hitzak, bestea tratatzeko modua, presarik gabe eta bere onena eman bez besteari, zaintzen dituen heldua ezagutzeko eta harremantzeko prozesua zaintzen duen pertsona da, eta espazio hezigarri ezin hobea eraikitzen du, bere esku hartze zuzenik gabeko harreman espazio bat.

Baina gauza da bere presentziarekin haurren prozesuak laguntzeko, arretaz eta intentsitateaz.

Ordena, errutina eta ñabarduren antolaketarako plazerak ahalbidetzen du bizi izatearen kultura bat eraikitzea hiru urtetik beherako haurrekin. Kultura hezigarri bat, egoteko, begiratzeko eta itxaroteko modu bat baldin badago, auke rez bete baina exijentziarik gabe, haur heziketan pentsatzeko modu horrek eskatzen du, nire esperientziaren arabera, espazioari buruz gehiago ikertzea, haurrak trebeak, sortzaileak eta beren baitan eroso senti daitezen. Horregatik uste dut hobeekin esan nahi duela kultura dakarren espazio bat, haurtzaroren benetako ezagutza, jolastearen eta jarduera librearen bidez sortzen den esperientzian islatzen dena.

Ikuspegi horretatik, ekimenetik jolasa ahalbidetzen duena litzateke espazio hobeezin bat, edozein momentutan gauzatzea eta bazter uztea baimentzen duena, baina baita sarbide erraza eta librea duena ere. Gauzak mantentzea, atxikitzea, gordetzea eta berezko leku bat dagoela sentitzea ahalbidetzen duena ere espazioa hobeezina da. Batez ere garrantzitsuak dira haurrak harreman emozional, sozial, fisiko eta imitatzaillean egiten dituen proiektu kulturalak, ikurraren miaketa —zentzua eta esanahia— ahalbidetuko diotenak. Horretarako garrantzitsua da jolasaren inguruak behatutako prozesu bakoitzerako antolatzea, .

Haurrak bakarka edo taldean jolastu ahal diren espazioak ere garrantzitsuak dira.

Denbora ematea ere garrantzitsua da. Jolasaren aldia berezia da. Kairos denbora da. Subjektiboa da. Intentsoa.





Helduari ez zaio beti erraza gertatzen bat-bateko jolasa jarraitzea. Batzutan zerbaitek ez du aurrera egiten eta artifiziala gertatzen da jolasa.

Ondo, egoki jolasten diren hurrek intentsitatea adierazten dute. Denbora behar da, eta intentsitate horrek jardun etenaren beharra izan dezake. Jolas espazioak jasotzen baditugu, behin eta berriz hastera behartuta daude haurrak. Hori ez da ona. Objektuak, proiektuak eta ekintzak berriz har daitezke eta jarraitutasun etena izan.

Egokieraren balioaz hitz egin nahi nuke. Hau da, "jolasa" sortzeko aukera ematen duen aldi horretaz, helduok harritzen gaituen eta haurrengandik ikasi behar dugun jolasa. Hurrek ematen digute haurtzaroko jolasaz ikertzeko aukera. Nire ustez, funtsezkoa da uler-tzea jolas intentso, lasaia eta sortzaile-rako aukerak eragiteko antolamenduak diseinatu ditzakegula ikastetxeetan, horrek ahalbidetzen duelako pentsatzea norberaren esperientziatik sortzen dela ikaskuntza. Beharrezkoa da pentsatzea nola bizi duen haur bakoitzak denbora eta esperientzia anitz hori ahalbidetzeko espazioaren antolaketa sortzea. Zeinen ona litzatekeen beti jolasean aritzea, egun osoan! Zeinen ona litzatekeen jolasak ematen duen plazerarekin lan egitea helduok! Zeinen ona litzatekeen lana horrela amaitzea, besterik gabe, eta berriz hartzean nola harrapatzen gaituen ikustean geure burua berriz harritzea!

## *Pilar Gonzalves eta Joaquín Escaray*



Hamaiketarako (haur bakoitzak auke-ratzen du bere ordutegia) eta komu-nera joateko tartek kentzen baditugu, eskolako gainerako denbora guztia erabat librea da, jolas denbora da. Lehen uste genuen jarduera arrakas-tatsua zela haurrak fitxa bat bukatzea; orain guztiz aldatu dugu pentsamol-dea.

Jolasean ari direlarik hurrek ez duten lortuko dutenaren arrakastan pentsatzen. Haientzat, erlatiboagoa da den-bora. Beharbada helduak gehiago pentsatzen du emaitzan haurrak baino, lan zail batean ari denean. Haurraren kasuan, prozesuak betetzen du dena.

Askotan ikusi dugu jolasean ari di-renean, zerbait egiten ari direnean, emaitzarekin harritu egiten direla. Eta deitzen digute esateko: "Begira ezazu hau!". Edo barrezka entzuten ditugu; jolasean klimax batera iritsi diren sei-nale.

Jolasa zientzialari lana da ere. Zien-tzialariek ere horrela egiten dute lan, arreta guztiz jarrita, eta maiz bat-ba-tean iristen zaizkie emaitzak. "Begira!", esaten dute. Edo barre egiten dute lor-tutakoari begira. Jolasaren eta jardun ikertzailearen arteko analogia da. Oso





antzekoak dira. Zientzialariek ez dituzte ondorio azkarrak ateratzeko, baizik eta lan bat planteatzen dute. Adibidez, minbiziaren sendabidea lortzeko, urrak txikiak ematen dituzte, denboran luzatutako lana da, eta emaitza azkar lortu behar dutela pentsatuko bagenu jolasaren motibazioa eta satisfakzioa desagertuko liriateke.

Jolasaren bidez beldurrak gainditzen dituzten umeak ere ikusi ditugu. Eta aldika galdetzen dugu: zergatik jolasten dira behin eta berriz jolas horretara? Lehen ez genuen horrela behatzen, umeak jolastera joaten ziren eta guk deskonektatzen genuen. Bakean uzten genituen eta bakean uzten gintuzten, nolabait esatearren. Baina orain ez. Haurren jolas denbora ikerketa handiko momentua da. Zergatik ematen dute horrenbeste denbora jolas berarekin? Eta bat-batean, egun batean, ume batek dio: "Zakurrek beldur handia ematen didate". Une horretan egiten dugu lotura: bi urte ematen ditu zakurretara jolasten, zakurren jolasa antolatzen, eta ulertzen dugu jolas horrekin bere terapia propioa landu duela umeak beldurra gainditzeko. Aurkikuntza handia da. Hori da jolasarekiko begiradan gertatu den aldaketa, ez dugu deskonektatzen, ikerketa iturri gisa erabiltzen dugu. Horrek satisfakzio handia ematen digu.

Hurrek bizi dutenarekin lotutako eszenatokiak eraikitzen dituzte. Adibidez, bada jolas guztiak bere beldur eta zailtasunekin lotzen dituen haur bat. Hizkiak egitera jolasten ari bada, idazten hasten da eta hizki guztiak ixten ditu otsoa sar ez dadin. Edo zerbait eraikitzen ari bada, ixten du eraikina otsoa sar ez dadin. Harearekin beste horrenbeste. Eta otsoak azaltzen diren ipuinak bilatzen

ditu. Bere bizi-eszenatokia berrosatzen ari da modu horretan.

Gure ikastetxeko familien egoera ere esanguratsua da: askotan pisu partekatuetan bizi dira, edo familia osoa gela batean. Konturatu gara espazio zabalak eta estimuluetan aberatsak behar direla jolasa garatu ahal izateko. Maiz ikusi dugu mugimendu behar handiarekin datozela haurrak, eta nabari zaie, esaterako, astelehen goizetan. Patiora ateratzeko tarte batzuk ezarri ditugu, leherketa haustura hori izan zezaten. Espazio zabalak behar dira, haurrak modu askean mugitu daitezten, eta estimuluetan aberatsak diren materialak behar dira, hainbat gaitasun garatu ahal izateko.

Horretan talka egin dugu eskolarekin. Askotan uste dugu haurren jardun akademikoa eta irakaskuntza espazio itxietan egin behar dela: gela, liburutegia, psikomotritate gela, gimnasioa... Gure ustez, eskolako denbora guztian jolas egiteko eskubidea dute hurrek, eta horrek eraman gaitu "debekaturiko" espazioak okupatzera. Gure kasuan, eskolak galeria eta korridore zabalak ditu eta haurrentzat oso inportantea izan da espazio horiez jabetzea, ez baitute altzaririk ez materialik. Baina gelatik ateratako materialekin okupatzen dituzte. Halaber, errespetuz jokatzeko dute espazio horietatik pasatzen direnekin eta euren gauzak jasotzen dituzte haien bidea ez oztopatzeko. Guretzat oso inportantea da espazioarekiko duten errespetua.

Gelako ateak zabalik uztea erabaki pedagogikoa izan da. Eskolan sartzen direnean, maisua edo andereñoa dagoen lekuan egon ohi dira. Baina autonomia eta segurtasuna izan ahala, gehiago





mugitzen dira ikastetxean zehar. Atea zabalik uztea autonomiarako gonbidapena da, erabaki eta joan ahal izateko gonbidapena. Gure geletako haurrek ez dute ezagutu “joan zaitez korridorera zigorturik” hura. Korridorea ez da zigor leku bat. Eskolako egituran ere aldarrikapen borroka izan da, beste lankideekin eta zuzendaritzarekin. Erabakia geure egin eta gure beldurrak onartu behar izan ditugu. Haurren eskubi-deetan aurrerapauso bat zela sinetsita gaude. Eta ateak zabaltzea ere bada haurrei eurek nahi bezala antolatzeo aukera ematea. Haiek erabakitzen dute: Zenbat denbora egongo naiz hemen? Norekin egon nahi dut?

Dauden tokian daudela, gustura daudela jakin nahi dugu. Alde horretatik, ikusi dugu badirela euren tokia aurkitzen ez duten haurrak, eta noraezean dabilta. Haiengan arreta handiagoa jartzera eramaten gaitu horrek: zer gertatzen ari zaio? Zergatik ez du bere lekua aurkitzen? Espazio itxi batean baleude, ez genuke antzemango. Egiteko askatasuna dutenez, ikertu dezakegu.

Partekatzen ditugun hiru geletan material bera ez izaten eta gela bakoitzean jolaserako aukera ezberdinak ematen saiatzen gara.

Horrez gain, eskolatik atera ohi gara espazio zabalagoen bila. Gure kasuan, eskolatik gertu dauden lorategiak dira. Astean behin, arratsaldean, ateratzen gara lorategi horietara. Beste dimentsio bat da. Sendiekin hitz eginda jakin dugu ez direla auzora ateratzen, hainbat arrazoi direla medio. Etxean sartuta egoten dira, eta kezkatzen gintuen haurrek auzoan presentziarik ez izateak. Eta euren senideei auzoko bizipenak kontatu ahal izateak.

Ematen dizkiegun materialekin euren espazioak sortzen dituzte, espazio zabalak bilatzen dituzten, edo eurek sortutako espazio txikiak bilatzen dituzte: mahaien azpian sartzen dira, armairuetan, apalategietan... Eta baieztatu dugu altuera diferenteetakoak izatea nahi dutela. Antza denez, gelak lauegiak dira. Adibidez, gure eskolako leihoburuak estuak dira baina segurtasunez egon ahal izateko adina zabal. Igotzeko eta altuera irabazteko erabiltzen dituzte.

Sortzen dituzten eszenatokiak oso loturik daude etxean bizi dutenarekin. Adibidez, Errumaniako familia bateko hiru urteko haur bat dugu; amona edo ama bezala janztea da haur horren jolasa. Haurtxoen gurditxoa hartzen, gauzez betetzen du eta hiru geletatik ibiltzen da. Bizi duenarekin loturiko jolas bat da.

Etxean debekatuta eta eskolan baimenduta dagoenarekin lotutako eszenatokiak ere ikusten dira. Adibidez, uraren tailerra. Askotan zailagoa da etxean urarekin jolastea. Gure eskolan egitura eta material batzuk daude, jolas ahal izateko. Oso kontuan hartzen dugu jolas horietarako arropa egokia ematea — beharrezkoa baldin bada arropa kentzen zaie busti ez daitezen— eta familiekin hitz egitea, haurren behar gisa balioetsi dezaten jolasa. Askotan familiekin lehentasuna ematen baiote umea ez zikintzeari edo ez bustitzeari. Eta guk ulertarazten diegu momentu horretan umeentzat beharrezkoa dela bustitzea edo zikintzea. Muga batzuen barruan: tailerren erabilerak arau batzuk dituela azaltzen diegu beti. Eta errespetatzen dute. Baina familiekin asko hitz egin behar izan dugu, ez baitute ulertzen eskolari dagokion kontua izatea.







## 4.2. Umeek esaten dutena

Mohamadou eta Imadekin elkartu ginen, 5 eta 6 urteko haurrak hurrenez hurren. Jolas librean esperientzia handia dute. Pilar eta Joaquinen ikasleak izan dira. Elkarrizketak narrazio erreal eta irudimenezko bat oparitu digu, honako ideia, teoria eta amets hauekin.

“Patioan eta parkean jolastea gustatzen zaigu. Parkean txirristak daude. Binetaren hanka harrapatzera jolas ten naiz, txirristatik igo ez dadin. Patioan eskalatzeko tokiak bilatzea ere atsegin dut.

Taconerako parkea muntatu ditzakezun armiarma sare bat eta barraskilo bat daude. Baita zaldi bat ere. Txorien etxetxeko bat zegoen, bat goian eta bestea behean. Batak lurra jotzen zuen eta besteak ez. Oiloak, oilar bat, ahate bat eta bi beltzarga ere bazeuden.

Jolaserako irudikatzen dut leku zilarreztatu, urreztatu eta gorri bat, yo-yo batekin eta urrutiko aginte batez funtzionatzen duen eta pertsona bilakatzten den auto batekin. Hosto zilarreztatuak eta urreztatuak dituen zuhaitz batetik sartuko litzateke leku horretan, eta tximinia duen ate batetik atera. Tximiniatik ganbarara ateratzen da, baina ezin da bertan sartu zonbi urreztatuak, zilarreztatuak, gorriak eta urdinak daukelako. Zonbi zintzoak dira.

Behean ere badago ganbara bat, harrizko Golem batekin, oso indartsua. Badago irratidun telefono bat ere, oihanera eramaten duen ate sekretu batekin. Dragoiak eta marrazoak daude oihanean.

Gutxitan joatea gustatuko litzaidake, ez sarritan. Aitak ez dit uzten beti jolastea, bestela azkar nekatzen zara.

Egunez jolastea gustatzen zait, gauetz ezin delako. Lo egin behar da. Nahia-go dut eguzkipean jolastu, bestela hotz egiten du.

Batzuetan amets egiten dut, muntro batek jazartzen nau eta korrika egiten dugu. Jolas ezkutu bat daramat ukabilean.

Jolasteko lekurik onena Ilargia da, oso dibertigarria delako oso gora jauzi egitea, espazio horretan Lurrean baino grabitate gehiago dagoelako, eta oso gora jauzi egin dezakezu. Ilargira joan gintezke orain eta gauean itzuli lo egitera”.







### 4.3. Prozesuak irudietan

Iruñeko Mendillorri Uda haur eskolan egindako argazkiak.















#### **4.4. Hainbat hausnarketa**

### ***Herritarren, eta batez ere haurren, ezagutza eta kontrol gaitasunarekin bateragarria den dimentsioa itzuli behar zaie hiriei.***

#### ***“Francesco Tonucci”***

Duela 30-40 urte eta gaur egun galde-tuz gero jolaserako espazio edota denborei buruz, orokorrean guztiok dugun pertzepzioa oso desberdina da garai batean eta bestean.

Lehen, jolaserako espazioaren irudia kalea zen, edota espazio irekia, naturarekin harremanetan zegoena. Denborari dagokionez, guztia genuen! Eskolatik atera eta denbora guztia genuen jolasteko, lagunekin elkartzeko, batera edo bestera joateko.

Orain aldiz, jolasaren espazioa irudikatzen eskatuz gero, leku itxia irudikatzen da: etxea, ludoteka, parkeak, “txiki park” delakoak, merkataritza zentroak... Jolasa ere aunitz aldatu da, eta orain, teknologiarekin loturiko jolasa nagusi dela esan daiteke: wi-a, bideo jokoak, ordenadorea, tableta edota mugikorrekoak... Imadek eta Mohamadouk mundu errealak eta irudimenezkoak uztartzen dituzte, arazorik gabe. Espazio hurbilak (etxe berezi hori jeisteko eta igotzeko) eta leku urrunak (ilargia esate baterako, non jauziak egin ditzakezun grabitaterik ez

dagoelako) beharrezkoak dira jolasteko eskubidea ziurtatzeko. Hauek dira umeen ametsak: jolasa hemen eta han, nahiz eta egunez bakarrik osatu; izan ere, “gaua lo egiteko da”.

Gauza bera esan daiteke denborari buruz: klaseak, bazkal orduak, edota lo orduak programatuak dauden lez, jolas orduak ere programatuak dituzte gaur egungo haurrek. Astelehenetan, 5etatik 6:30ak arte, saskibaloia; asteazkenetan 4:30etatik 6ak arte, pilota; 15 minutu bideo jokoan; eta asteburuan, wi-arekin jolasteko baimena. Bestalde, etxeko lanak daude. Gure ustez, debekatuak egon beharko liriateke umei jolasteko denbora lapurtzen dietelako. Jolasa aipatzen dugunean, jolas autonomoa, sortzailea, kalitatezkoa, naturan, kalean eta lagunekin egindakoa aldarrikatzen dugu.

Atal honetan argi azaldu digute eskolan bertan zein zailtasunak dauden jolasaren eskubidea garatzeko. Haurrek ere gauza bera diote.

Eskolatik kanpo ere, denborak eta espazioak izugarri murriztu dira. Heike Freirek azaltzen digun moduan, “70eko hamarralditik hona, jolas autonomotik etxerako distantzia, alegia, haurrak noraino urruntzen diren bakarrik jolasteko, %90 murriztu da, eta asteko aisialdia 15 ordu laburtu”.

Ezinbestekoa egiten zaigu hezkuntza komunitate osoan hausnarketa sakona egin eta egoera honi buelta emateko bidean erabakiak hartzen hastea.








Hasiak gara modu berri hauen ondorioak aurreikusten (haurren lodiera tasaren igoera, harreman-etarako arazoak...).

Bide batez, gaur egun hain zabalduak dauden "sasi gaixotasunei" (TDAH adibidez) aurre egiteko moduan izanen gara.

Jolasaren garrantzia aldarrikatzearekin batera, eskubide hau garatu dadin tresna eta bitartekoak jarri beharra dago.

Bitarteko hauetan noski, espazioak eta denborak leku nagusia hartzen dute.

Espazio gehiago eta prestatuagoak izateaz gain (ikus parkeen inguruko hausnarketa Oinherrik ateratako liburuxkan), denbora gehiago eskaini beharra zaiola zalantzarik ez dago, eta azken honetan, helduok badugu asko aldatzeko.





## 5. BUKATZEKO ETA HASTEKO

*Haurraren jolas libre eta bat-batekoak pertsona helduaren esperientzia gorenen antza du (ikerketa, artea, mistika...)*

*“Francesco Tonucci”*

Liburuxka honetan ibilbidea egin dugun elkarriketatu ditugunen hitz argitsueta, haurren ideia jakintsuetan eta irudimenezko mundu ludikoa ekartzen diguten argazkietan zehar. Zeharkako mundu batzuekin osatu daitezkeen ideia batzuk besterik ez dira.

Agortu arte aldarrikatzen dugu eskubide hau, zeina garapena eta ongizatea ematen dion hazkundeari, barneko energia ekintzara bideratu egiten duen eta norberaren ekimen eta erabilera gaitasuna garatzen duen gauza eta pertsonen aurrean. Frogatua dago laborategian hazitako tximuek egunero hoge minutu behar dituztela jolasteko

beraien gaitasun intelektual eta sozialak gal ez ditzaten. Pilar eta Joaquín-ek geratu gabe jolasten diharduten haurrei buruz hitz egin digute. Haurrek, asperraldiaz hiltzeko arriskuaz hitz egiten digute. Haurrak ez du porrotaren beldurrik jolasean, jarduera ez baitago antolatua helburu zehatzik lortzeko.

Ahots anitzeko lan honek, jazz ekitaldia balitz moduan, aukera ematen digu hobeto ulertu eta sakontzeko bizi auzi honetan, ez ahazteko nortzuk garen, nondik gatozen eta nora joan nahi dugun.

Eskerrik beroenak lan hau posible egin duten guztiei.





# HAURREN AISIALDI PARTE-HARTZAILEA, EUSKALDUNA, HEZITZAILEA ETA HERRITARRA GARATZEN

**Koaderno bilduma:**




**JOLASA:  
ESKUBIDEA ETA ERREALITEA**



**ARTE HEZKUNTZA ETA PROZESU  
KOLABORATIBOAK  
Elkarrekin sortu, elkarrengandik ikasiz**

## BILDUMA HONETAKO AURREKO ALEAK:



**<http://oinherri.weebly.com>  
helbidetik jaitsi ditzakezu doan.**